


Elektrizitatea sendagai Antzinaroan

NATIONAL GEOGRAPHIC



Antzinako Grezian eta Erroman arraien (argazkian) eta ikaraioen deskarga elektrikoak erabiltzen zituzten sendagai: buruko minerako, hezueriarako... Egiptoarrek, aldiz, eskuragarri zuten arrain elektrikoak baliatu zuten: Niloko arrain katua.

GREZIA, K.A. VI. MENDEA. Miletoko Talesek ikusi zuen substantzia erretxinatsu horixka batek, zapi batez edo animalia larruz igurtzita, objektu arinak erakartzeko propietate bitxia lortzen zuela. Substantzia hura anbara zen, grekoz *elektron*. Antzinako greziarrek ez zeukaten fenomenoaren azalpenik, baina horrek ez du esan nahi hari probetxurik ateratzeko gai ez zirenik; badirudi zenbait tokitan anbara erabiltzen zutela arropan itsatsita geratzen ziren hosto eta belar lehorrak kentzeko.

Zenbait arrain espeziek harrapakinak durduzatzeko eta, hala, erraz ehizatzeko eragiten dituzten deskarga elektrikoak azaltzen ere ez zekiten, baina etekina atera zieten berdin; nagusiki, buruko mina arintzeko erabili zuten zenbait arrainen ezaugarri ebolutibo bikain hura. Egiptoarrek Niloko arrain katua edo silurua erabiltzen zuten migrainen tratamendurako. Greziarrek eta erromatarrek, aldiz, arraiaren eta ikaraioaren deskargak baliatu zituzten, eta askotan haztegieta gordezten zituzten, erremedioa eskura izateko. Plinio Zaharrak (K.o. 23-79) idatzi zuenez, “arrain elektrikoak sendagarri gisa erabiltzen dira, buruko mina eta hezueria arintzeko”.

Scribonius Largus sendagileak Klaudio enperadorearen gortean egin zuen lan K.o. I. mendean. Historiako farmakopea zaharretarikoan, *De Compositione Medicamentorum* izeneko lanean, 271 sendabide bildu zituen. Horietako bat, honakoa: “Buruko min iraunkor eta jasanezina berehala kentzeko eta sendatzeko bizirik dagoen ikaraio beltz bat jartzen da mina dagoen tokian, oinazea arindu eta gune minberatua txindurrituta geratzen den arte”. Klaudioaren medikuak ere oinetako hezueria sendatzeko balio zuela zioen: oinutsik sakonera gutxiko uretan sartu eta ikaraioek lan egin zezaten utzi behar zuten eriak. Beste idatzi batzuetan artritis eta epilepsia sendatzeko gomendatzen ziren arrainen deskarga elektrikoak.

Berriki Cefaly izeneko gailu elektroterapeutikoa merkaturatu dute. Kopetan ipintzen den gailuak bulkada elektrikoak erabiltzen ditu nerbio trigeminoan estimuluak eragiteko eta, hala, buruko mina arintzeko. Ofizialki ontzat emandako migrainaren kontrako lehen gailu elektriko da, baina ezin esan sendabide berri-tzailea denik. ■



Arrastoak

Agatha Christieren kaligrafia irakurtezina

THE GUARDIAN



AGATHA CHRISTIE (1890-1976) oso idazle emankorra izan zen: 66 misterio eta hilketa nobela argitaratu zituen. Baina idazle ingelesak eskuz idazteko zailtasun handiak zituen, disgrafia izeneko koordinazio arazoa medio. Haren eskuizkribuak irakurtezinak ziren. *Krimenaren erreginak* laguntzaile bat izan zuen beti alboan, eta hari dik-

tatu zizkion argitaratutako lanak.

2004an idazlearen alaba Rosalind Hicks hil zenean, Christiek eskuz idatzitako hainbat koaderno aurkitu zituzten familiaren etxean. John Curran artxibozaina idazlearen zirri-marrak dezifratzen hasi zen orduan eta, besteak beste, Hercule Poiroten bi istorio berri aurkitu zituen. ■